

PERU' TIK

Aita Zenon Uriguen pasiotar adiskide ta lankideak, gabon-aurrean eskutitza egin dausku Peru'ko Lima'n dan "Santa Beatriz" parrokitik.

Gure adiskide ta lankide onek sarritan eta era askotara agertu dausku gure euskereari dautson benetako maitasuna. Nok ez dauz irakurri berak Peru'tik idatzitako lan ego-kiak?

Baiña aspaldion isillik geunkan gure Zenon. Ez euskun bialtzen idaz-lanik, ez eskutitzik. Zer jazo ete jako?

Azkenean pozik artu dogu emen agertzen dogun esku-

titza: Esku-artean daroazan lan aundiak ez dautsoe izten lengo lana egiten.

Beartsuen artean beteten dau bete zeregiña Aita Ze-non'ek eta zeregin ori guztiz itzalgarria da gure aldetik.

Baiña ez dogu itxaropena galtzen! Etorriko jakoz gure adiskide ta lankideari egun nasaiagoak eta orduan barriro pozik egingo dogu alkar lana.

Irakurri egizue Aita Zenon adiskidearen eskutitza:

LIMA 96-abendua

Olazar'tar Martin jauna

Mungia

Lagun zintzo ta maitea: Agur t'erdi, jauna.

Gabon zoragarria. Urte Barri pozgarria.

Nire ixiltasunari buruz guztiz arrituta izango zara, onezkero.

Zergaitik ete da ba, nire ixiltasuna? -Astirik eza, eta gairik eza.

Parroki ontan buru belarriraño lanez beterik nago, ogei millatik gora lagun ditudalako neure ardurapean. Eta euren aide zintzo jokatzan asi ezkerro, etorri eta etorri jatortzuz agortu eziñeko bearrak eta ekiñaldiak.

Emengo jendeen bearrizanak ez dira gero edozelakoak, edo auntzaren gabeko estulak: Sendi askoren ondapena, lanik eza eta pobretasuna, barru-barruko estutasunak eta naigabeak, larri-aldi gorri ta mingarriak. Asko ta asko dabilta argi baten billa, zuzenbidea eskuratu nairik.

Gabon jaietarako pobreen alde jakiak eta jantziak batzen diardugu, egun onetan, Gabon gaba gozaro ospatu dagien.

Jesus'ek esandakoa egia da izan be: "Eskerrak Jauna, gauza oneik jakitunai eskutatu eta pobrei argitu dituzulako"

Zeintzuk dira gauza orreek? -Jainko zaletasuna, otoiari ekiteko eraspenna, Kristo'ren Barri Ona gogo onez artze-ko gaitasuna... etabar.

Gaztedia, barriz, eun bat neska mutil, egunero ibiltan dira eliz etxe ontan otoi giroan, abesti saioan, euren arteko batzarretan. Amabost urtetik gorako neska mutillak dira, biotz garbiak, Jainko zaleak eta pastoral arloan jokatzan diarduenak.

Zer esanik be ez, nire egunak eta orduak eginbearrez gañezka dagozala.

Orretzaz gañera Parroki ontan illeroko aldizkaria argitaratzen dogula, eta ainbeste eta ainbeste idazlanek makiña bat denpora kentzen daust.

Sarritan egon naz pentzatzen aldizkari ontan ateratzen ditudan idazlanak, batez be Editorial, euskeraz jarri eta orra bialtzea. Baiña, egia esateko, ez dot uste erri ortarako egokiak eta aukerakoak izango diranik.

Dana dala, ZER aldizkaria illero artzen dot eta ondo jantzia dator etorri be. Ez dot uste nire premiñarik dozunik.

Or bialtzen dautzudaz 50 dollar nire zorrak ordainatzeko.

Zure erantzunaren zain nago.

Ondo bizi eta zintzo ekiñ.

Artu, danok besarkada samur ta zintzo bana.

Agur
Urigen'tar Zenon